

Topalekua

111 zk. 2022ko uztaila

EHU/UPVko GIZARTE KONTSEILUA
CONSEJO SOCIAL DE LA UPV/EHU

HAINBAT DIRULAGUNTZERI DAGOZKIO 405,5 MILIOI EURO

Gizarte Kontseiluak 2021eko ekitaldiko UPV/EHUren kontuak onartu ditu

Gizarte Kontseiluko Osoko Bilkurak ekainaren 29an ospatutako bileran onartu zituen Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko kontabilitate egoera-orriak 2021eko ekitaldirako, zeinean unibertsitateak 436,9 milioi euroko aurrekontua izan zuen.

Zenbateko hori aurreko ekitaldietako soberakinen gehikuntzaren ondorioz aldatu eta 559,1 milioiko zenbatekora heldu zen, zeinetatik UPV/EHUK 454,3 milioi erabili zituen.

Eusko Jaurlaritzaren diru-transferentziek eta dirulaguntza arruntek UPV/EHUren finantzazio iturri nagusia osatzen dute 353,6 milioi euroekin.

2021eko ekitaldian ondare-emaizta ekonomikoaren kontura egotzitako diru-transferentzien eta dirulaguntza arrunten guztizko zenbatekoa 405,5 milioi eurokoa da, honako banakapen honen arabera:

UPV/EHU 2021 DIRULAGUNTZAK	Milioi euro
Emailea	Jasotako diru-transferentzia arruntak
Eusko Jaurlaritza	353,6
Estatua	24,8
Europar Batasuna	17,8
Gipuzkoako Foru Aldundia	1,1
Bizkaiko Foru Aldundia	0,5
Arabako Foru Aldundia	0,03
Besteak	7,6
Guztira	405,5

Osoko Bilkurak akordio berean baimendu zituen Euskoiker, UPV/EHUKo Uda Ikastaroak eta Medikuntza eta Zientzia Historiaren Euskal Museoa erakundeen, zeinetan unibertsitateak gehiengo parte-hartze duen, kontabilitate egoera-orriak. Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateak unibertsitateko gobernu organoari aurkeztu dio finantza eta ekonomi informazioa hori gizarteari kontuak emateko prozesuaren barnean.

Aurrekontu aldaketak

Bilera berean, Osoko Bilkurak 10.000 euro baino gehiagoko 6 aurrekontu aldaketa proposamen onartu zituen 421.151 euroko guztizko zenbatekorekin.

Horrez gain, 10.000 euro baino gutxiagoko 24 proposamen baliozkotzea adostu zuen 76.000 euro baino gehiagoko zenbatekorekin, ekipamendu zientifikoren, irakaskuntzarakoaren, informatikoren, eta ikus-entzunezkoaren erosketarako.

Berezko titulazio berriak

Gizarte Kontseiluko Osoko Bilkurak Universidad del País Vasco/ Euskal Herriko Unibertsitateak 2022-2023 ikasturtean eskainiko dituen berezko titulazioen prezioak onartu zituen ere. UPV/EHUK hirurogei master eta graduondoko baino gehiago eskaintzen ditu.

<https://ehu.eus/eu/web/estudiosdeposgrado-graduondokoikasketak>

Hurrengo ikasturtean honako hamabi berezko titulazio berri hauek eskainiko dira:

Unibertsitateko aditua

- Gizarte eta Hezkuntzako Proposamenak eta Ongizatea Hautzarotan, Nerabezaroan eta Gaztaroan.
- Zauri Konplexuak, Kronikoak eta Zikatrizazio Zailekoak dituzten Pertsonen Zaintza Integrala.
- Kirola, Hezkuntza eta Elkarbizitza: Haur eta nerabeen babesa.
- Gizarte eta Hezkuntzako Proposamenak eta Ongizatea Hautzarotan, Nerabezaroan eta Gaztaroan.

Unibertsitateko espezializazioa

- Irakaskuntza Atzerriko Hizkuntzen eta Edukien Ikasketa Integratuan (AHEII).
- Kudeaketa Linguistikoko eta Kulturala Pazientean Zentratutako Osasun Arretan.
- Suizidologia.

Berezko masterra

- Gizarte eta Hezkuntza arloko Esku-hartzea Arriskuan eta Gizarte Gatazkan Dauden Nerabe eta Gazteekin.
- Jasangarritasunerako Aldaketaren Lidergoa eta Kudeaketa Balio Soziala Sortzeko Laborategia ALDATUZ.
- Finantza Merkatuak eta Banka Pribatua.
- Periodontzia.
- Arte eta Kultura Garaikideko Praktika eta Teoria.



Horrez gain, Osoko Bilkurak Giza Zientzietako Unibertsitate Tituluaren (Esperientzia gelak) prezioa finkatu zuen 2022-2023 ikasturterako.

Bost lankidetzak-beka

Halaber, Gizarte Kontseiluak Ministerioak 2022-2023 ikasturterako deitutako bost lankidetzak-beka ikerketa taldeen puntuazioen arabera garatutako zerrenda hasten duten UPV/EHUKo Sailei eskainiko dizkiela hitzartu zuen:

- Ingeniaritza Kimikokoa
- Balioen Filosofia eta Gizarte Antropologia
- Ingeniaritza Kimikoa eta Ingurumenaren Ingeniaritza
- Historia Garaikidea
- Matematikak

Ordainsari osagarri gehigarriak

Gizarte Kontseiluko Osoko Bilkurak ordainsari osagarri gehigarrien urteko deialdia onartu zuen ere, UPV/EHUKo irakasle eta ikertzaileek (IIP), Eusko Jaurlaritzako 209/2006 Dekretuan ezarritakoaren arabera, irakaskuntzaren eta ikerkuntzaren inguruko haien merezimenduak aitortzen dituzten osagarrien esleipena eskatu dezaten.

Deialdia Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria argitaratuko da irailean, eta bertan ezarriko dira ordainsari osagarriak jasotzeko irakasle eskatzaileek bete behar dituzten baldintzak, eskaera egiteko modua eta epeak. Horrez gain, kontseiluak A eta B maileri dagozkien azken deialdiko ordainsari osagarriak esleitu zizkien 681 irakasleri.

Aldaketak sei masterretan eta gradu batean

Gizarte Kontseiluak Hezkuntza Sailari proposatuko dio Material Berrien Master Unibertsitarioaren funtsezko aldaketa, zeina UPV/EHUK (koordinatzailea) eta Kantabriako Unibertsitateak batera antolatzen duten. Aldaketak proposatuko ditu ere honako master hauetan: Zientzia eta Teknologia Kuantikoak Unibertsitate Masterrean, Gizarte Demokratikoa, Estatua eta Zuzenbidea Unibertsitate Masterrean, Industria Antolakuntzaren Ingeniaritza Unibertsitate Masterrean, Ingeniaritza Energetiko Iraunkorra Unibertsitate Masterrean eta Osasun Psikologia Orokorra Unibertsitate Masterrean. Aipatutako titulazioen sarrera plaza kopurua handituko da. Horrez gain, Gizarte Kontseiluak Ingurumen Zientzietako Graduaren ikasketa planaren aldaketa proposatuko du, zeina UPV/EHUKen gradu eskusiboa den.

Azkenik, eta saio berean, osoko bilkuren eta batzordeen egutegia onartu zen hurrengo ikasturterako, 2022ko azarorako eta abendurako, eta 2023ko martxorako eta ekainerako.

ADECCO GROUP-ren "2022ko LAN MERKATUAREN URTEKARIA"-ren ARABERA, 34.900 €-rekin, 33.100 €-rekin ETA 31.100 €-rekin, HURRENEZ HURREN

Araba, Gipuzkoa eta Bizkaia 2021ean biztanle bakoitzeko BPGd handiena zuten lehenengo sei probintzien artean daude

Arabak, 34.900 €-rekin, biztanle bakoitzeko pandemia aurreko per capita BPGd-aren probintzia-zerrenda hasten du. Gipuzkoak, 33.100 €-rekin, hirugarren tokia du, eta Bizkaia, 31.100 €-rekin, seigarrena.

Autonomia-erkideko guztien BPGd handitu egin zen 2021ean. Euskal Herriak, 32.400€-rekin, autonomia-erkidegoen zerrendan bigarren toki-a dauka, eta Madril lehenengoa, 34.400€-rekin. Ondoren, honakoak datoz: Nafarroa, 31.300€-rekin; Katalunia, 30.900€-rekin; eta Aragoi, 28.700€-rekin; Adecco Group Institute-ren "2022ko Lan Merkatuaren Urtekaria"-ren arabera. 2021ean, BPGd-k % 5,1 egin zuen gora eta aurreko urtean galdutakoaren % 40 baino pixa bat gehiago berreskuratu zuen.

Iturria: Adecco Institute
EINren oinarritik

PROBINTZIEN ARABERAKO BIZTANLE BAKOITZEKO BPGD-A (MILA EUROTAN)


1 Araba	34,9	5 Nafarroa	31,3	9 Lleida	29,3
2 Madril	34,4	6 Bizkaia	31,1	10 Zaragoza	29,2
3 Gipuzkoa	33,2	7 Tarragona	30,4	11 Girona	28,4
4 Bartzelona	31,4	8 Burgos	29,7	12 Huesca	28,4

13 Castelló	28,2	27 Asturias	22,6	33 Ceuta	20,1
14 Soria	28,2	28 Pontevedra	22,5	34 Zamora	20,0
15 Errioxa	27,7	29 Segovia	22,3	35 Huelva	20,0
16 Palentzia	27,6	30 León	21,8	36 Melilla	19,5
17 Valladolid	27,0	31 Albacece	21,6	37 Las Palmas	19,3
18 Teruel	25,7	32 Ciudad Real	21,4	38 SC Tenerife	19,2
19 ESPAINIA	25,4	33 Salamanca	21,3	39 Málaga	19,0
20 Balearrak	24,7	34 Guadalajara	21,0	40 Toledo	18,9
21 Valentzia	24,1	35 Murtzia	21,0	41 Granada	18,6
22 Coruña	23,9	36 Almería	20,8	42 Badajoz	18,5
23 Lugo	23,4	37 Cáceres	20,6	43 Cádiz	18,3
24 Kantabria	23,4	38 Sevilla	20,5	44 Córdoba	17,8
25 Orense	22,8	39 Ávila	20,5	45 Jaén	17,7
26 Cuenca	22,7	40 Alacant	20,1		

2022-2026ko Unibertsitatea + Enpresa Euskal Estrategiak laurogei titulazio dualtara iritsi nahi du

"2022-2026ko Unibertsitatea + Enpresa II. Euskal Estrategia"-n bildutako helburuak honako hauek dira: gaitasun handiko talentua prestatzea eta bikaintasun zientifikoari eta ezagutza hori enpresa-eremuan aplikatzeari lotutako ezagutza transferitzea. Plana Eusko Jaurlaritzaren apustu handietako bat da Euskal Herriko Unibertsitate Sistema indartzeko. Planaren hamar ekin-tzen artean dago unibertsitateko titulazio dualak 80ra iritsi arte areagotzea, graduak 50 eta masterreko 30, zeinetan 1.000 enpresek eta 10.000 ikasleek parte hartuko duten.

Iturria: Eusko Jaurlaritzako
Hezkuntza Saila



EUSKAL HERRIA, % 53,8-arekin, MATEMATIKA ETA ESTADISTIKAN GRADUATUTAKO EMAKUME GEHIEN DITUEN AUTONOMIA-ERKIDEGOA DA

UPV/EHUK Euskadiko unibertsitate matrikulen % 73,98 hartu zuen 2019-2020 ikasturtean

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU) Euskadin pisu erlatibo handiena duen unibertsitatea izaten jarraitzen du 2019-2020 ikasturtean, matrikulatuen % 73,98-arekin. Ondoren, honakoak datoz: Deustu, % 16,69-arekin; eta Mondragon, gainerako % 9,34-arekin; CYD Fundazioak garatutako "Espainiako Unibertsitateak. 2021eko Ikuspuntu autonomikoa. Euskal Herria" txostenaren arabera.


Azterketa horrek adierazten du Euskadi, % 53,8-arekin, matematika eta estatistika arloetan STEAMen graduatutako emakume gehien dituen autonomia-erkidegoa dela. Tituludunen STEAM espezializazioari dagokionez, Euskal Herria arlo horietan graduatutako ehuneko handiena duen bigarren autonomia-erkidegoa da ingeniarietaz gain, non lehena den.

Gradu ikasleriaren jardura Euskal Herrian nahiko positiboa da. Bigarren autonomia-erkidegoa da bai ikasle eta urte bakoitzeko matrikulatutako kredituen batez besteko zenbateko handienari bai lehenengo urteko ikasketa uzte-tasa txikienari dagokionez. Halaber, lau urteko graduatan ezarritako denboran graduatutako ikasle ehuneko handiena duen autonomia-erkidegoa da. % 46 baino gehiago, Espainiako aurreko unibertsitateen % 40 baino gutxiagoaren aurrean.

Irakasle eta ikertzaileei dagokionez, Euskadi irakasleen parte-hartze erlatibo gehien duen bigarren autonomia-erkidegoa izateagatik eta emakumezko katedradunen eta titularren presentzia erlatibo gehien duten bosten artean egoteagatik nabarmentzen da.

Iturria: Ikasle estatistika, Unibertsitate
Informazioaren Sistema Integratzailea
(SIIU), Unibertsitateen Ministerioa

2019-2020 IKASTURTEA. UNIBERTSITATE MARIKULATUAK EUSKAL HERRIAN (Guztizkoa Gradua, Master Ofiziala eta Doktoretza)




PRESTAKUNTZA PROFIL DEMANDATUENAK KUALIFIKAZIO HANDIENA ESKAINTZEN DUTENAK IZATEN JARRAITUKO DUTE 2022an

Osasun eta Informatikan graduatutako 10etatik 9k baino gehiagok prestakuntza altuko postuetan lan egiten dute

Odontologia, Medikuntza, Erizaintza, Ingeniaritza Aeronautikoa eta Podologia titulazioek prestakuntza altuko postuetan lan egiten duten graduatuen ehunekorik handiena dute, "Gazteen enplegarritasun Spainian: nolakoa da unibertsitate graduatuen sartzea lan munduan?" txostenaren arabera.

PRESTAKUNTZA ALTUKO LANPOSTUAK EZAGUTZA ALORREN ARABERA



Aipatutako azterketak, zeina CYD Fundazioak 2019an prestakuntza altuko lanbideetan (zuzendari eta gerenteak, zientzia arloko teknikari eta profesionalak eta laguntza emateko intelektualak, teknikariak eta profesionalak) lanean ari ziren 2013-2014ko graduatuei buruz garatu zuen; ezagutza alorren arabera graduatuen %93,3k Osasun eta Gizarte Zerbitzuekin lotura daukaten esparruetan lan egiten duela adierazten du (ikus goiko grafikoa). Ondoren, honakoak datoz: Informatika (%92,8), Ingeniaritza, industria eta eraikuntza (%87,8), Hezkuntza (%83,8), Zientziak (%82,6), Nekazaritza, abeltzaintza, basogintza, arrantza eta albaitaritza (%80,8), Arteak eta humanitateak (%72,3), Gizarte Zientziak, kazetaritza eta dokumentazioa (%72,1), Negozioak, administrazioa eta zuzenbidea (%64,9), Zerbitzuak (%60,5).

Confebaskek enpresek gehien demandatzen dituzten prestakuntza profilak zeintzuk diren azpimarratzen du

Confebaskek bere kideak diren enpresei "2022rako Euskal Enpresen Enplegu eta Prestakuntza Premiak" gaiaren inguruan 600 inkesta egin ondoren garatutako txostenean honako hau adierazten du: prestakuntza profil demandatuenak kualifikazio handiena eskatzen dutenak izaten jarraituko dutela 2022an. Ikasketa mailaren arabera aurreikusitako kontratazioa %27,4koa izango da unibertsitate ikasketei dagokienez, eta %7,7ko unibertsitate graduondoko edo doktoretzei dagokienez. Demandatutako Unibertsitate prestakuntza profilek guztizkoaren %35,1 osatzen dute, eta 15.000 pertsona baino gehiago barne hartzen dituzte.

2022rako AURREIKUSITAKO KONTRATAZIOAREN BANAKETA BEHARREZKO IKASKETA MAILAREN ARABERA

